


Nafar **k**aria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko azaroak 13 / II. urtea / 50. zenbakia

Etorkinak, miseria gorrian



Metropoli forala



FELIPE RIUS

Gogorra da aurreko egunean zerbeza bat jarri ditzuen hogeitazortzi urtetako kamareroa gau hartan bihotzeko batek jota hil dela jakitea. Gainera, lehenengo inpresioa gaintitu ondoren, oroitzen zara zigarro bat eskeini zeniola. «Azkenean berdin berdin hilko gaituk» esan eta zigarroa hartu zuen azkenetako bat zela ez zekiela. Ez ginen oso adiskideak, baina zenbait kamareroekin harreman berezi bat sortzen da, konplizitate ategin bat somatu dezakezu barraren beste aldean emandako orduen ondorioz. Beti obsesionatu nau segundu batean lau mila milioi lagun zerbairetan ari izateak, instant batean milaka lagun hiltzen, jaten, txortan, irakurtzen edo disparatzen ari direla pentsatzeak, eta askotan, munduan zerbairet garrantzitsua gertatu denean, une hartan zertan ari nintzen oroitzen saiatu naiz behin baino gehiagotan. Orain ez dakit zehazki zer egiten ari nintzen lehengo gauean, agian, beste askotan bezala, sofa batean eserita nengoen heriotzaz eta maitasunez pentsatzen —eros eta tanatos, zergatik lotzen ote ditugu beti?—. Auskalo. Berria esan didatenan tristetu naiz, harriturik geratu naiz, eta ez bakarrik neri gaur bertan gauza berbera gertatu dakidakela bururatu zaidalako, baizik eta asko kostatzen zaidalako ez didala beste zerbezirik inoiz jarriko onartzea. Ohitzen saiatzen naizen bitartean, bere lankide batek eskatu ez dudana zerbeza bat gehiago atera dit eta falta den lagunaren oroimenez altxatu ditugu basoak. Kamata fina fitxatu dute eternitateko tabernan. Salud, Juan.

SK

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Andres Larraga pintorearen lanak ikusgai daude Tafallako erakusketa aretoan, Kultur Patronatoak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailak antolatutik. Balterran pasa den mendean jaiotako artista honen pinturak ikus daitezke erakusketa honetan, ohizko ordutegian.

Sagrario San Martin en lanen erakusketa zabalduko dute gaur bertan, ostirala, Iruñeko Pintzel Galerian. Erakusketa hilaren 28ra arte egonen da zabalik, goizean zein arratsaldean.

Luis Vidal pintoreraren lanak Aurrezki Kutxa Munizipalak Iruñeko Garcia Castañon kaleko aretoan duen erakustokian daude ikusgai, hilaren 22ra arte. Loreak, zuhaitzak eta gai abstraktoak dira pintura gehien gaia.

Roberto Gonzalez pintorearen lanak ikus daitezke Iruñean datorren 29a arte, Lan Kide Aurrezkiak Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Pinturaz aparte, eskulturak ere baditu artista honek, baina oraingoan oleoak bakarrik ekarri ditu.

Asteburu honetarako mendi ibilaldi ederra aukeratu dugu, Nafar Mendizale Federakundaren eskutik. Lizara-Ibon Estanes-Oza basoa bitartean, Aigues Tortes, Viatorin, eta paraje ederrak ikusi ahal izango ditugu. Irteera igandeko goizeko zazpitan izanen da Iruñeko Autobus geltokitik, eta 600 pezeta balio du txangoak.

Lizara Aragües del Puerto Huescako aranean dagoen lautada txiki bat da, aterpe batekin. Handik atera eta Plano de Mistresara abiatuko gara, dagoen 600 metrotako desnibela gainditzeko. Izugarriko bidea da, arraoil batetik sartuko baikara. Mistresatik Valle de los Sarrioseira, eta izugarriko mendi arku agertuko zaigu.

Aran hau oso txikia da, eta sarriok primeran bizi dira bertan, lasaitasun osoz. Hortik Ibon de Estanesera abiatuko gara, eta zerbait jeitsiko dugu horretarako. Hor bazkalduko dugu. Ondoren, lepo bat gainditu ondoren, Visauringo



hormak agertuko zaizkigu, eta, iparralderuntz, Aigues Tortes arna zapalduko dugu. Lasai-lasaia, Pirineotako aranik ederrenetakoa da

hau, eta ondoren Graminza arana ere zeharkatuko dugu. Hortik Hechora bidea, Ozaraino, eta han bukatuko da 6-7 orduko ibilbide hau.

dute, taldeak berak jakinera eman duenez. Interesatuak dantza taldeak Descalzos kalean duen egoitzara joan daitezke, edo telefonoz deitu.

ikastaroetan ere toki sobera dago. Izena emateko, elkarteak aldapa kalean duen egoitzara jo behar da, arratsaldeko 8etatik 10etara.

naldia arratsaldeko 8etan izango da, bertako Kultur Patronatoak eta Gobernuo Hezkuntza eta Kultura sailak antolatutik.

IKASTAROAK



Dantzak ikasi edo fanfarre batean musika jo nahi duten neska-mutilek Ortzadar Iruñeko euskal folklore taldearekin harremanetan jartzea besterik ez

Ingelesa ikasteko aukera zabaldu du Alde Zaharreko Auzo Elkarteak, egunero ordu beteko ordutegiarekin, bi maila desberdinetako ikastaroa antolatu baitu. Honetaz gain, pintura, kosmetika naturala, masaia eta autodefensa

ANTZERKIA



'III Congreso Internacional de Timadores' izeneko antzezlan aurkeztuko du gaur, azaroak 13, Duodeno Teatro taldeak, Tafallako Kultur Etxean. Ema-

'Ama baten komedia Hinguingarria' izeneko lana aurkeztuko du asteburu honetan Kilkarran antzerki taldeak. Emanaldia arratsaldeko 8etan izango da, Nafarroako Antzerki Eskolan, eta sarrerak 600 pezetan salduko dituzte, gazte txartela

izanez gero 300. Saio hau Antzerki Eskolak, Gobernuaren laguntzarekin, udazkenerako antolatutako duen kanpainaren barruan dago, eta abenduaren 8a arte iraungo dute emanaldiek.

'Karakollins' izeneko lana antzeztuko du bihar, azaroak 14, Kollins taldeak, arratsaldeko 7etan Berriozarko Mendialdea Ikastetxearen ekitaldi aretoan. Emanaldi hauek Berriozarko Koordinadora Kulturalak antolatutako duen Antzerkiaren IX. Jardunaldien barruan eskaintzen dituzte, azaroko larunbat guztietan.

MUSIKA



Txistulari eta Gaiteroen taldeen kontzertua egonen da igandean honetan, hilak 15, Iruñeko Gaiarre Antzokian, La Panplonesa Banda musikarekin batera. Emanaldia eguerdiko 12,30etan hasiko da, Iruñeko udalak antolatutik. Bertan, Iruñeko Gaiteroen taldea, La Panplonesa, Txistularien taldea, Sax Quartet taldea eta beste batzuk arituko dira.

MENDI IBILALDIAK



Mendi ibilaldia antolatu du igandean honetarako, hilak 15, Nafarroa Kirol Elkarteak. Ateraldia Lizarragako Tunelatik Urbasako mendatera izango da, goizean goiz hasita. Parte hartu nahi duenak Elkarteak Jarauta kalean duen egoitzara jo behar du.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIAK

ADI !

UPN eta PSOE ez dira gauza herriko gestioa aurrera erametako».

Angel Rincon
Cortesko alkate ohia

«Barkamena eskatzen dut behar denean».

Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

«Une batzuetan ez dugu elkar ulertzen».

Jan Urban
Osasunako jokalaria

«Gu gara UPN ez hausteko lehendabiziko interesatuak».

Jaime Ignacio del Burgo
Politikaria

Pedrag Spasic



Atzelaria

Korner baten ondotik izan zen. Serbiarra ez zegoen bere ohizko tokian, baizik eta aurka-koen atearan aurrean. Ez zegoen defendatzen, erasotzen baizik, eta El Sadarreko zaletuek begiak igurtzi behar izan zituzten, ikusten ari zirena sinesteko. Atzelariak, Beckenbauer edo Baresiren planta erakusten zuen orduan, ateruntz begira. Baloia eta bere bernaren artean hamar bat jokolari zeuden, baina Pedragen eguna zen hura. Heldu zionean, jakina zen, gola sartuko zuela. Eta El Sadarrek une bateko duda izan zuen. Baina, ez, Spasicek Osasunaren aldeko gola sartua zuen.

J. A. Villamayor



Arangurengo alkatea

Datorren abenduaren 14ean hasiko da Arangurengo 19 biztanle eta HBko hiru parlamentarien kontrako epaiketa, 1990eko apiriletik azarora bitartean Gongorako zabortearen lanak zirela eta izan ziren istiluengatik. Bertan Jose Antonio Villamayor alkatea bera izanen da, eta fiskalak bi urte eta zazpi hilabete bitarteko kartzela zigorrak eskatzen ditu, desoreka publiko, desakato eta kalte materialak eragiteagatik. Larria erabakia eta zigor eskaerak, Goardia Zibila eta zinpeko goardiak egindako mehatxu eta eraso guztiak artxibatuta baitira.

Patxi Bisquert



Aktorea

Aktore gipuzkoarra Iruñean ibili da egunotan, 'Betizu' antzerki lana aurkeztzen. Bertan, aktore eta idazle honen iragana azaltzen da, era intimista batean, baina, beti ere, berak ezezik Euskal Herriaren kolektibo zabal batek bizi duen bizitzaren bilakarearen erreferentzi gisa. Antzezlan luzeegia, agian, Patxi, Jon Gabella eta Izaskun Asuak hartzen dute parte Ignacio Amestoyk eta Bisquertek berak burutu gidoian. Musika Bingen Mendizabalena da. Atzo gauez Zaldiko Maldiko elkartearen mintzaldia eskeini zuen aktoreak eta Begoña del Teso zinema kritikoak.

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2


Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



HERRIZ BERRI



Orreaga



Orreagan Nafarroako historiaren zati garrantzitsua gordetzen da.

Kolegiata, ondare artistikoa

IRUNEA

Nafarroako Kultura eta Hezkuntza kontseilariak ondare artistiko izendatu berri ditu Orreagako Kolegiata eta ondoan dauden eraikinak. Javier Markotegiren dekretuan azaltzen denez, erabakia bertan dagoen ondare artistikoari ohore egiteagatik hartu zen, eta «kontutuan hartuz Orreagak izan duen garrantzi historikoa, eta bereziki Santiago bidearen barruan funtsezko erreferentzia dela eta».

Orreagan egun dauden eraikinak zortzi mendetako histo-

riaren ondorioak dira, gorabehera handiko zortzi mendeak, izan ere. Zazpi eraikinek osatzen dute Kolegiata: eliza (XIII. mendekoa), San Agustin kapera (XIV. mendea), Izpiritu Santuaren kapera (XI-XII. mendekoa); Santiago kapera (XIII. mendekoa); ostatua (XVII. mendekoa), benefiziatuen etxea (XVIII. mendea) eta priorren etxea (XIX. mendekoa).

ERROMESENDAKO OSPITALEA HASIERAN

Kolegiata Santiago bideko erromesendako ospitalea izan zen hasieran, eta 1127an sortu

zuen Sancho Larrosakoa garai hartako Iruñeko artzapezpikuak. Halaber, gaur egun desagertua dagoen ostatu bat eraiki zuen Ibañetan. XIII. mendean Orreagaren eragina franko zabaldu zen hegoalderuntz, eta Santiago bidearen bitartez, Iruñerria, Londiga, Unziti, Elortzibar, Orba ibarra, Dejerri eta Erribera zein erdialdeko zenbait herritaraino heldu zen.

Arlo artistikoan azpimarratzekoa da 1219an eraikitako elizak Frantziako zenbait eraikinekin duen harremana. Denen jatorria, adituen arabera, Pariseko Notre-Dame da.

Barruan Orreagako Ama Birjinak toki berezia du gordeta, ez baita alferrik bertako piezarik ederrenetakoa. XIV. mendeko bigarren erdialdeko Tolosako artisauen lana azpimarragarrietakoa da.

Halaber, 1615 eta 1660 bitartean eraiki zen klaustroak aurretik zegoen gotikoaren txanda hartu zuen, elurrak hondoratu baitzuen azken hau.

Klaustro honetan aurki daiteke San Agustin dorrea, eta bertan, Antso Azkarraren jatorrizko hilobiaren estalpea dago, erregearen irudi batekin, XII. mendekoa.



BERAko Gure Txokoa elkarteak antzerki ikastaro bat antolatu berri du Bortzirietako hamasei urtetik goitikoendako. Horretarako bilera izanen da gaur bertan, hilak 13, Iamotenean. Ikastaroak Udalenaren laguntza jaso du.

IRUNBERRIko Arangoitz ikastolak lehendabiziko maila euskaraz emanen du aurten lehendabizikoz. Asmoa duela hiru urtekoa da, orduan bertako eskola publikoetan horrelakorik parartzeko asmoa izan baitzen. Orduan baina, ezinezkoa suertatu zen eta aurten, azkenean, lortu da. Gogoratu behar da Irunberriko umeen % 60 ikastolara joaten direla.

ERRONKARIko gazte batzuek 'Egudiargo' aldizkariaren lehendabiziko alea paratu dute salgai, Pirinioetako gai aunitzekin. Bertan, ibarrako zazpi herriek beren txokoa izango dute, eta oraingo ale honetan Izaban udaberri honetan egindako larre eta zelaien garbiketari buruz erreportaia agertzen da, Larra-Belaguan egin nahi den eski-pisten zabalpenaren gaiarekin batera.



ARRIZABALAGAko bizilagunek Echaury y Tiebas enpresak Tiebasen duen harrobiarako bidea moztu zuten astelehenean bi orduz, egiten diren ezteandek bizilagunen etxeetan sortzen dituzten kalteengatik protestatzeko asmoz. Duela zenbait urtetik hona arraila franko agertu dira zenbait etxetan, eta bizilagunak kezka dira gauzek gero eta larriago baitirudite. Orain arte egin protestaldiek ez dute inolako atarramendurik sortu, eta aseguruak ez dute arazoaz ezer jakin nahi arrailak beste arazoengatik sortuak direla esaten baitute. Enpresak erabiltzen den materiala legez baimenduta dagoena baino txikiagoa dela dio, baina arrailek bertan diraute, gero eta handiagoak.

ARGETASko alkatesa abstenitu egin zen intsumisioaren alde bertako udalbatzan aurkeztu zen mozioari botoa emateko orduan, bere semea intsumisioa delako, baina bere taldeko eta UPNko zinegotziek ezetza eman zioten mozioari. Udalbatzan ere SOS Arrazismoa erakundeak aurkeztutako beste mozio bati ere ezetza eman zioten, «Udalaz kanpoko gaiak zirelakoan», eta PSOEK gogor kritikatu zuen HBko taldea, bere ustetan, mozio hauen atzetik talde abertzalearen «esku beltza» zelakoan.

Nafarroa

Txakur orok mikrotxiparekin

IRUNEA

Doneztebek foruak jaso zituenetik 800 urte beteko direla eta, festak izanen dira Malerrekako hiriburuan abenduaren 13tik aurrera. Bertan, erakusketak eta mintzaldiak izanen dira foruen garrantzia herritarren artean zabaltzeko. Foruak 1192an jaso zituen Doneztebek, eta Antso Jakitunak eman zizkion. Orduetik aurrera Doneztebe inguruko hiriburua izan zen, baina, denboraren poderioz, Bertizarana, Sunbilla, Ituren, Zubieta, Elgorriaga, Gaztelu, Donamaria, Urrotz eta Oitz banandu egin ziren.

IRUNEA

Nafarroan dauden 50.000 txakurrek mikrotxip bana eraman beharko dute aurrerantzean, beren identifikazio eta kontrola hobeki eraman ahal izateko. Mikrotxipa, 'transponder' izenekoa, belarri ondoan jarriko da, lepoaldean eta azalaren azpitik, eta bertan txakurraren inguruko informazio guztia bilduko da. Horrekin, Nafarroako Gobernuak arazo franko saihestu nahi du txakur deslaiekin, eta errolda eguneratuta izango du eskura, urtebeteko epean txakur orok izan beharko dutelako tramankulua

jarrita. Horretarako Osasunbideko albaitekoak izango dira, baina ebakuntza jabeek ordaindu beharko dute.

Nafarroako Gobernuak, horren bidez, txakur guztiak kontrolatzeko asmoa dauka, eta informazio zerbitzua paratuko da martxan. Bertan txakurren identifikazioa egin nahi duten guztiak aukera izango dute, eta gaitz eta izurriten segimendu zehatza egin ahal izango da. Halaber, jabearendako zein biztanleendako ere abantailak ekarriko ditu sistema berriak, galdu edo istripuren bat izanez gero, berehalako identifikazioa egin ahal izango baita.



Txakurren errolda egiten da.



SOS Arrazismo taldeak etorkinen egoerari buruzko txostena aurkeztuko du gaur, ostirala, Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubide Batzordean. Bertan azaltzen da 800 etorkin ilegalen egoera latza, gehienak miseria gorritik gertu baitaude. Erriberan bereziki, uzta bilketan eta nekazaritza lanetan aritzen dira, baina etxegintza arloan edo bazterreko beste lanetan ere ugariak dira desberdintasunak. Taldea duela urtebete t'erdia sortu zen Mugarik Gabek antolatutako jardunaldi batzuen ondorioz, eta bere lana laguntza eta aholku juridikoak ematera mugatzen bada ere, sentsibilizazio kanpainari ekingo dio aurrerantzean. Europa osoan azaltzen ari den arazoaren oinarria, beren ustetan, Iparrak Hegoan sortutako desorekak dira, eta kulturen arteko ezagupena proposatzen dute egoerai buelta emateko. Berarena da hemengo lana, Mugarik Gabek egiten duenarekin osagarri. Izan ere, biak bat datoz funtsean: Hirugarren Munduaren garapena bultzatu beharra dago, baina hango beharren arabera.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

SOS Arrazismoa taldeak burutu berri duen txostenaren arabera, miseria gorritik gertu dauden 800 bat etorkin ilegal daude Nafarroan, eta Tuteran dauden horietako hogeitamar luze gabe kanpora lezakete. Oro har, 3.800 etorkin daude lurraldean, baina ilegal hauen egoerari erreparatzen dio bereziki txostenak. Baldintza latzetan —etxebizitzarik gabe, soldata oso eskasekin eta onarpen legalik gabe—, arrazismoaren arazoaren arriskuaz ohartaraztea da helburua.

Erriberan daude, nekazaritza lanetan eta uzta garaiekin gorabeherak izaten badira ere, ugariagoak dira urtetik urtera. Hain zuzen ere, andaluziar eta portugaldarren txanda hartu dute etorkin berri hauek, bereziki marokkoarrak eta algeriarrak, eta 'preziatugoa' omen dira bertan: ez dute arazorik sortzen eta lan gehiago egiten dute, eta, 'garrantzitsuena', ez dute eskaerarik egiten soldatari buruz: merkea eta ona.

Bainan nekazaritza gain, badaude beste arloetan horrelako egoerak. Txostenak jasotzen duenez, etxegintza arloan ere soldaten desberdintasun handiak dira, eta Mendillorri egiten ari diren lanetan, kasu, Magrebeko etorkinek, beltzek eta txuriek baino gutxiago kobratzen dute ordurako. Egoera hau bereziki ilegalei dagokie, baina, legalekin ere antzeman dira desberdintasun latzak. «Urtebeteko kontratua dute askok —azaldu du Gurutz Martinez SOS Arrazismokoak— eta kontratua ez luzatzeko beldurra beldurrez, ez dira beren eskubideak eskatzera ausartzen».

SOS Arrazismo taldea duela urtebete t'erdia sortu zen, Espai-

Etorkinak: merkea eta ona



Afrikako etorkinak, gure garaiko indianoak.

EFE

nia osoan zeuden etorkinen egoera legezatzeko epea zabaldu zenean. 1991ko martxo eta apirila bitartean, horrela, 480 etorkinek legezatu zuten beren egoera Nafarroan, baina horretarako dau den oztopoak gero eta gehiago dira. Lehendabizi, jatorrizko herrialdeko lan baimena behar dute, bisa bat lortzeko. Eta behin hori eskuratuta, bertan bizitzeko baimena ematen diete. Hain zuzen ere, horri buruzko informazioa ematea da taldeko lana, eta bere egoitzatik epe

honetan 120 bat etorkin azaldu da. «Laguntza juridikoa eta zerbaitu guztien berri baino ezin diegu eman —azaldu du Martinezek—, lan baimena eskuratzea ia ezinezkoa baita. Izugarriko zapuzketa da baina ezin da ezer lortu. Hori bai, egin behar zuten guztia egin duten segurtasunarekin ateratzen dira hemendik».

Talde honetan Caritas, Emausko Traperoak, Majari elkarte eta etorkinen zenbait talde biltzen dira, eta Atzerritarren Legearen

kontrako manifestazioa antolatu dute hilaren 21erako Iruñean. «Hemen bizi eta lan egiten duten pertsonak dira —dio Martinezek— herri honetako ekonomiari eusten diotenak, eta ez dute inolako onarpen ez eskubiderik». Talde hauek ideia hau zabaldu asmoz lanean dihardute, eta horretarako txosten bat kaleratu dute.

Taldeak osatu duen txostenaren arabera, miseria gorrian dagoen populazioaren % 8ren zati bat dira, eta kriminalizazio arriskua dute gainean. «Egoera berberetan dagoen populazioaren lehiakide dira, eta errezago jotzen da taldearen kriminalizazio-rantz». Hain zuzen ere, Tuteran aldera horretarako saiok somatu dituzte, eta ijitoekin arazoak izan dira Iruñeko zenbait auzotan.

Mendillorri Magrebeko langile zuriek eta beltzek baino gutxiago kobratzen dute, eta bereziki ilegalekin gertatzen bada ere, legalekin ere desberdintasunak daude.

«Arrazismo instituzionala»


A. B. / IRUÑA

«Herri bat ez da arrazista aukera ematen zaion arte, baina garbi dago arrazismoari aurre egiteko modu bakarra kultura dela. Talde batek besteen kulturak ezagutzen dituenean, preziatu eta estimatu egiten ditu». Gurutz Martinezek azaldu duenez, hiru arrazismo mota dago: soziala, hau da, talde batek beste baten kontra jotzen duenean; politikoa, arrazismo sozial hori eurganatzan saiatzan den taldeena; eta instituzionala, arrazen arteko desberdintasunak lege bitartez bultzatzen direnean. «Azken hau da hemen daukaguna —dio Martinezek— Atzerritarren Legearrekin hemen lanean dagoen jendea-ri eskubideak ukatzen baitzaizkio. Esklabutza berri bat bultzatzen ari dira Europa osoan, eta


etorkinen egoera benetan penagarria da. Erroka eta oso arazo latza dugu esku artean, mundu osoko arraza eta kulturen arteko nahasketa ebiteazina baita».

Nafarroan ez dira izan arrazismo arazo larriak, baina zenbait ekintza eta informazio oker behar baino kezka handiagoa sortzen ari direla uste dute taldean. «Nafarroako biztanleen soilik % 0,2 dira etorkinak, eta kontutan hartu behar dugu Afrikako zenbait herrialdeetan, % 20 dutela. Badago etorkinen korrante bat Afrikatik hona, bai, baina hori Iparrak eragin duen desoreka guztien ondorio bat da. Horregatik, soluzioa ez da, inondik inora poliziala. Hango garapena bultzatu behar da, bestela, Afrikak ez baitu inolako etorkizunik izango luze gabe, eta arazoak are latzagoa izango da».



Etorkinak:  Ipar-Hegoaren ondorioa

mintzoak



EL Salvadorreko Cegundo Montes komunitatea, Morazan departamentuan.

MIGUEL REYES

Iparra eta Hegoa

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Mugarik Gabe-k, egun, Gobernu Kanpoko Erakundeen (GKE) artean Euskal Herrian finkotasun handia lortu du. 1987an jaio zen, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako jendearen partaidetzarekin, eta haste-hastetik beste GKE eta garapenerako zenbait proiektuekiko desberdintasun sakona erakutsi zuen. «Hegoaldeko lurraldeetan dagoen miseria eta garapenik ezak Iparaldean dagoen garapenaren ondorioa da», dio erakundearen lema nagusiak. «Orduan, garapenaren protagonistak beraiek behar dute izan, haiek duten beharren arabera, eta ez Hegoaldean dauzkagun beharrek baldintzaturik».

Hau da taldearen lanaren ardatza. Egun, Ertamerika eta Hego Amerikan batez ere, bertako erakundeekin aritzen da Mugarik Gabe lanean. Erakunde horiek aldaketa sozialetan murgildutakoak izaten dira, eta bertan dauden behar edo proiektuei aurre egiteko eskaerak egiten dituzte. Behin eskaera jasota, hemengo taldea arduratzen da soluziobi-deak aurkitzen. «Nekazaritzan edo abeltzantzaren aritzeko, kultura berreskuratzeko, hezkuntza eta osasun egitasmoak aurrera eramateko, horrelakoak dira jasotzen ditugun eskaerak —dio Javier Aisa taldekoak— eta ondoren oso segimendu estua egiten zaie laguntza horiei. Horregatik, hango erakundeekin harremana ere oso estua izaten da».

Erakunde horietaz gain, Mugarik Gabek ez dauka inolako harremana hango gobernuarekin, beren ustetan horiek bait dira

bertan dagoen egoera kaskarren eragilerik nagusienetakoak. «Mota guztietako trabak paratzen dizkiote garapenari, bertan dagoen elite militar edo sozialaren mesederako, eta gu komunitateek beraiek bultzatutako antolakuntzaren alde gaude».

Halaber, oso garbi dute taldean arazoa ez dela konponduko Hego-Iparren artean dagoen harremanei eusten, eta Iparri leporatzen diote gaitz gehienak.



MUGARIK GABE

Artoa xahutzeko errota bat

A. B. / IRUÑEA

Aurtengo proiektuen artean Guatemala iparraldean artoa xahutzeko errota bat erosteko dirua, edota '500 años' izeneko musika talde baten materialarako bezalakoak aurki daitezke, taldeko filosofiak proiektu txikiei erreparatzen bait die bereziki.

Hain zuzen ere, 1993rako lanen artean azpimarratzekoak dira oso arazo konkretuei dagokien lanak, lan erraldoiak baino. Heldu den artean, horrela, Kolonbiako ibaien garbiketa eta birziklapenerako bertako komunitate baterako dirulaguntza eskuratzea da helburuetako bat, eta Zangozerriko zenbait herri Nikaraguako nekazari komunitate batekin harremanak zehaztu dute, teknikak elkartrukatzeko.

«Hegoaren arazo gehienak —azaldu du Aisak— Iparrek erabilutako politikatik datoz. Herrialde hauek kanpoko zorrarekiko duten menpekotasuna izugarria da, eta dena baldintzatzen du. Horrekin puskatu egin beharra dago. Halaber, Iparrek behar dituen produktuak baino, hegoak behar behar dituenak bultzatu behar dira bertan, menpekotasun hori, bestela, ez baita inoiz apurtuko».

Guatemala iparraldean dagoen errefuxiatu eta erbesteratuen komuniteterako proiektu sendoak Iruñeko udalaren dirulaguntza —8 milioi pezeta— jasoko du, eta El Salvadorren, Chalatenango departamentuan, jatorrizko bizitokitara itzuli diren familien nekazaritza eta artisau tailerrak finantziatuko dira.

Horretaz gain, zenbait proiektu orokorragoetan dauka eskuartean taldeak, eta bertan, beste EEGen partaidetzarekin, Mexicoko guatemaldar errefuxiatuen trebaketa lanetarako proiektua dago; Nicaraguako Acoyapa departamentuan etxebizitzaren eraikitze asmoa Eusko Jaur-laritzak finantziatuko du, eta El Salvadorren, Chalatenango, arrantza eta nekazaritzaren produkzio garapena lortu nahi da.

Josefina Irujo, itzulirik gabeko erbesteria

● Orain dela gutxi prentsan azaldutako eskela baten bitartez, Buenos Airesen erbesteratua zegoen Josefina Irujo Ollo urriaren 17an hil zela jakin izan dugu. Egungo euskal abertzaleen artean oinarriak Nafarroako lautadetan errotu zituztenen belaunaldiko partaide kementsuenetako bat berarekin bertirako joan zaigu.

Izan ere, Lizarrako emakume hau, bere anaiekin batera, gazte-gazte zelarik hasi zen Ega aldeko eremuetan barrena euskal nazionalismoaren ideiak herritaratzen. Korrante politiko honetako historian familia honen aitzindaria zen Manueli leku oso zabala dagokion arren, gainontzeko senideek burutu zuten lana ere ez zen batere makala izan. Gehiegikeriak erran gabe, gerra iritsi arte on Manuelek erdietsitako lortu politikoak, euskal abertzaleen artean bat egiten zuten familia baten ahaleginen gailurra bertzerik ez zirela ziurta dezakegu.

Josefinari, orduko emakumeen artean egokitu zitzaion lanari ekitea. Bera izan zen Julia Fernandez Zabaleta, Katalina Alastuey, Dolores Hermoso de Mendoza eta bertze batzuekin batera, Emakume Abertzale Batzaren buruzagi aktiboenetako bat. Erakunde honen antolaketa mitin eta EAJko bilkuretan parte zuzena hartzeaz gain, ardurakulturalen ere (Lizarrako Larrain dantzaren berreskurapenean, hango euskal eskolaren laguntza arduetan...) su eta gar aritu zen.

1936ko uztailaren gerra lehertu zenean, Irujojarrek Errepublikarekiko izan zuten leialtasuna zela medio, Nafarroan nagusitu zen bortxa eta gorrotoak kartzelara eramane zuten Lizarrako etxean zeuden familia hauetako partaide guztiak. 'Biba Kristo Rey!-ko' erreketek ez zuten inolako begirunerik izan, haurdun zegoen bi emakume, Josefina bera eta Pilar, atxilotatutako kanpo uzteko. Izan ere, egoera berezi horretan, atxiloturik zeudelarik, biek erditu behar izan zituzten beraien alabak. Zenbait hilabete beranduago, Gurutze Gorriak burututako preso trukaketa bati esker Frantziaratu ziren Landetako Kapbretonen laketzeko.

Hala eta guztiz ere, errefuxiatu hauen nekeak ez ziren batere baretu. Frankoren garaipenari nazismoaren eraso militarrek txanda hartu ziotelako, Estatu espainiarren gatazka Europa osora zabaldu zen. Honen ondorioz, 1940ko ekainean naziek

Frantziako inbasioa burutu zutelarik erbesteria zeuden euskaldunek bigarren ihesaldi bat prestatu behar izan zuten. Hauxe izan zen Josefina eta bertze antzekoekin zutena. Naziak Frantziaratu ziren egun berean, ekainaren 11n hain zuzen ere, Bordeleko kaietan itxasoratu ziren 6 hilabete iraun zuen bidaiari luzeari hasiera emateko.

Helmuga Atlantikoz bertalde zegoen, Argentinan alegia. Dena den, Amerikako urruntasunak ez zuen oztopatu, orduz geroztik, Euskal Herriaren alde burutu zuten lan izugarria. Bertze atzerriko lurraldeen antzera, Buenos Aireseko euskal txokoek ederki garatu zituzten abertzale hauen amets eta itxaropenak. Urrun bazeuden ere, urte askotan zehar Euskal Herriko abertzale hauen arimak gogoz taupatu egin du 'Tierra Vasca', 'Eusko Deya', 'BIAEV' aldizkari eta Ekin argitaletxearen bitartez.

90 urte zituen emakume lizarrratar honek giro honetan bere bizitzaren erdia baino gehiago eman du. Urteen poderioz, berak pairatu du Pablo Artxanko, S. Kuntxillos, C. Salinas, bere senarra zen Angel Blanco eta bertze errefuxiatu nafar aintzaren patua, hau da, erbesteria hiltzeara. Tamalgarría izan arren, Josefina Irujoen kasuan gertatu den bezala, historia ere komunikabide ofizialek kanpo bertze pertsonak eta bizitzak badi-rela, heriotzaren berri dakarten eskelek bakarrik gogoratzen dituzte. Antza denez, Amerikako kontuetan hain esanguratsua egin nahi duten 1992ko urtea ez da nahikoa izan kontinente honetara joan ziren eta bertirako gelditu diren nafar hauen izenak eta oroitzapena berreskuratzeko.

Honetaz jabetzeko, ikus bertzerik ez dago Nafarroako Gobernuak finantzatu eta kaleratu duen 'Navarros en America-5 Cronicas' liburua, bereziki Argentinari eskeinitako atala. Lurralde amerikarretan izandako pertsona nafar ospetsu batzuek (Ursua, Jauregi, Iturbide...) edota deskribapen folkloriko zein alderdikorrek euskal kutsu edo zentzu politiko duen zenbait nafarren presentzia erabat zokoratu bait dute.

Horregatik, iragan hurbileko gatazkek, bereziki 1936ko gerrateak erbesteria bidali zituen errefuxiatuak, sasihistoria eta luxoz aurkeztutako publizistikak, herri oroimenatik kanpo gordetza nahi dituen honetan, sekulan baino beharrezkoagoa dugu Josefina Irujo bezalako pertsonak errebindikatzea.



Gazteendako Zokoa

Eskinosoa

Garrulus Glandarius
Aurkitzen zaila
Baso hostotsuetan
Migraziorik ez du egiten



Txori zelataria

Zelatan egoten den txoria, bere oihuek, frankotan, gizakumeen presentziak ohartarazten dute beste txori asko. Oso azkarra da horretarako eta batzutan ere nahastea sor dezake beste txorien kantuak eta oihuak imitatzen baititu.

Usapal arruntaren tamainakoa, ñabarra du gorputza eta hegala beltzak, ertzetan urdinak. Isatsa karratua dauka eta beltza bada ere, hegan nabaria da beste zolda txuria. Buruan gangar txuria, zenbait zolda beltzekin, bibote beltza eta moko sendoaren jabe da.

Bere oihuek talde ugari baten irudia sor dezakete, baina gehienetan bikoteka edo talde txikitan ibiltzen da basoetan. Bertan ezkurak eta pagaziak hartzen ditu, eta horretaz elikatzen da, basafruitu, intsektu eta batzuetan sagu eta narrastiez ere bai. Noizbehinka ere harrapatzen ditu txori-oxoak, txontak bereziki.

Ez du migraziorik egiten, baina janaria eskastuz gero, hegoalderuntz jotzen du. Europa, Asia eta Afrikaren iparraldean bizi da, eta Nafarroan jatorrizko basoetan antzeman daiteke.



Haren ederrak gatibatu egiten nau

OIHANEDER INDAKOETXEA

Betidanik gustatu izan zait herrira joatea. Orduak eta orduak igaro ohi ditut menditik paseatzen, gero bidertzean eseri eta dena ikusteko. Ez da oso herri handia, ez, baina 'zibilizaziotik' datorren gauza arraro guztietatik at dago. Agian horrexegatik gauzak adi kontenplazten ditut. Uda berrian txoriak txior-txiorka senti ditzakegu eta urtxintzak bat besteari lepoan kokka egiten. Txakurrak katuari jarraitzen, zeinek arratoia jan nahi duen. Elizako kanpain-dorreko ezkilak ordu zehatzean jolasean eta behiak sorotik bueltan, aiton-amonak itzuli berri diren behiak jeisten, eta beraien iloba gazteak plazan jolasean. Zoragarria. Gaueko kil-kir hotsaz eta zakurren zaunkaz, etxeko nagusia loak ezin

hartu. Trena ere pasatu ohi da, bere atzetik ke beltz eta ilun bat utziz. Honek amets atseginak apurtu eta deabru bilakatzen ditu herriko bizilagun guztiak.

Eta nik, beti bezala, arratsaldero bezala 'txotxolindua', ezin ditut ahaztu herriko gizon-emakumeak; beraien lanetan, beren seme-alabei elikatze behar duten dirua lortuz eta behietatik esne pittin bat arratsero hartuz.

Ezin ditut gibelean utzi egun hotz eta beroak. Gizonak beren aizkora indartsuekin mendian egun pusketak mozten edota ondoak hartzen. Nahiz eta herriko jendeak lan mordo egin, nik badakit familia hauek pozik eta zorionsu bizi direla eta horrek nire bihotza sendotu egiten du eta ez naiz negarrez hasten. Urte osoan dagoen lan giro tristeak,

goibeldu egiten nau baina ingurugiro txinpartak, aldiz, herriko txoko guztiak, eta nire gorputzarenak ere, piztu egiten ditu. Neguko elur malutek duten gozotasuna; udaberriko txorien kantuen hotsa eta landare mota guztien jaiotza; udako alaitasuna, eta udazkeneko zehertasun garaia eta jadanik Iparraldetik datorren haize hotza nabari dira.

Ilargi beteko gauetan ilargia handi-handia ikus daiteke eta mamuak irten daitezkeela sentitzen duzu. Hain da polita eta izugarria, ze ukitzeko gogoak sortzen zaizkizu. Haren ederrak gatibatu egiten nau. Otsoen uhuriek hotzikara sortzen dizkizu, zeintzuk hurrengo goizerarte etxetik ez ateratzea gomendatzen dizuten. Gaez, hain misteriotsu sumatzen duzu herria...



BASAJAUN

Iberiar Penintsula bere basoak gutxien zaindu dituen lurraldeetakoa da Europan. Suteak, neurritz kanpoko egur mozketek, lurraren beraren emankortasunaren galerak eta euri azidoak suntsitu dute baso asko.

Datu oso bitxia: fruituak eta zitrikoak ekoiztu eta komertzializatzen dituzten enpresek interes handia dute basogintzan eta eukaliptoen ustiaketan, laranjendako kajak egiteko! Hain zuzen ere, eukaliptoek bertako espezieen atzerakada sortzen dute, lurraren emankortasuna agortu egiten baitute. Dena azkar eta merke kajak eduki ahal izateko. Pinua ere bertako basoek zituzten berezko nagusitasunaren kontrako arerio nagusienetakoa izan da. Pinuak sutea du lagun ingurugiroan nagusitzeko lehia honetan.

Zuhaitzak behar beharrezkoak ditugu, karbono dioxidoa oxigeno bihurtzen baitute, atmosfera berotzen duten gasen oreka ziurtatzen dute, higadurak aurrera egin ez dezan laguntzen dute eta lurrari ongaria itzultzen baitiote. Horrela, ingurugiro aberats eta anitza sortzen dute.

Europako basoak, egun, eguratsak duen kutsadura jasaten ari dira, bereziki nekazaritzan erabiltzen diren belarrilkari eta euri azidoen bitartez. Iberiar Penintsulan, oraindik oso ezezaguna eta arrisku gabeko euri horrek lau zuhaitzetatik bat kaltetu du dagoeneko. Landare eta zuhaitzak zaintzeko beharraz ohartarazi beharra dago, bai gu, baita gure seme-alabak ere. Udalek zuhaitzak landatzeko egitasmoak bultzatu beharko lituzkete. Lagundu eta parte hartzazazu zuhaitzen defentsarako kanpainetan. Abenduan pinua eta korostiri buruzko informazio kanpainak bultzatuko dira: informa zaitez.

Jenero Xumekoak

Klaus Kinski doluz gainezka

Emakumeek utz zaitzabela ausartegia izateagatik, sekula sekulorum lotsatia zarelakoz. Lehendabiziko kasua denboraren poderioz barkatu egiten da, bigarrena inoiz ez. Dena den, aholku hau betetzearren, Isabelekin ezkondu nintzen. Nire hiztegi ttipian Isabel Bakardadearen sinboloa da, latak egiten dituen etxe baten izena bait da, gau aunitzetako nire bazkaltiar bakarra.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Pago zuhaizti
2. Ez geza
3. Herri nafarra
4. Emakume izena
5. Bianako

	1		3		5
1		2		4	

1. Erretegiak
2. Herri nafarra
3. Coruña herria
4. Bozatekoa
5. (Pl.) txori mota

	1		3		5
1		2		4	

1. Herri nafarra
2. Erail
3. Arabako
4. Ulisesen uhartea
5. Mozkinak

	1		3		5
1		2		4	

Zaharrak berri

Zaietan irin, eta irinetan zai. Edozein lanetan hasi eta kontra joaten dena.

Oskotz

Morro bat erreka baten ondotik dago, zerbait puztuzten.

—Zer ari haiz panpina puztuzten?

—Arraio, egia duk! Zodiak-ekin aritu nauk ba larrua jotzen!

Bizi Bizian


Kirok Medikuntza eta Ikerketa Zentroaren aurka gogor jo dute Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen murrizketek. Bertan lan egiten zuten sei medikuetatik bost langabeziako zerrendak mardultzera bidali ditu Jose Luis Diez Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari nagusiak. Kaltetuek —Kirol Federazioek alegia— zentroaren jarraipena eskatzen dute, baina ez dirudi konponbide erreza izango denik, diru kontuekin Nafarroako Gobernu zahur jokatzeko ari baita toki orotan. Bitartean, 350 kirolari inguru goi mailako prestakuntza eta jarraipenik gabe geldituko dira. Kirola paralisia josta.

Kirol medikuntza paralisia josta

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Nafarroako Kirol Medikuntza eta Ikerketa Zentroak jasotzen dituen dirulaguntzak nabarmen gutxitu ditu Nafarroako Kirol Institutuak. Nafarroako Gobernuak iragarritako aurrekontuen murrizketek gogor jo dute kirol sailaren kontra, eta Jose Luis Diez Nafarroako Kirol Institutuko zuzendariak joan zen astean zentroko zazpi langileetatik seiri kontratua ez ziela berrikeratu iragarri zuen. Esteban Gorostiaga zentroko koordinatzaileak lanpostuari eutsiko dio, baina zentroko beste sei langileak langabetuen zerrendak mardultzera joan dira, hala nola, Javier Ibañez fisiologoa, Luis Espino trauma eta errehabilitazioan aditua, Maria Jose Rodriguez psikologoa, Alberto Modrego kirol medikuntza eta elikadura aditua, Ana Lasanta fisioterapeuta eta Lola Santesteban SUTA.

Bost sendagileek eta SUTak utzitako hutsunea betetzeko, Kirol Institutuak Nafarroako Gobernuko bi sendagile funtzionario —horietako bat ginekologoa— eta SUT bat jarriko ditu lanean Kirol Medikuntza eta Ikerketa Zentroan. Orain arte, 35 milioi pezetako aurrekontua zeukan Esteban Gorostiagak zuzentzen duen zentro honek urte bakoitzeko. Milioi horietatik 30 langileen nominak ordaintzeko erabiltzen ziren, eta gainontzeko bostak material berria erosteko. Egun ez da ezagutzen zentroak hemendik aurrera jasoko duen dirulaguntza zein izanen den. Hori dela eta, paralisia josta dago Nafarroako Kirol Medikuntza eta Ikerketa Zentroa, eta eskeintzen zituen zerbitzuak inork ez ditu betetzen orain. Psikologia, dietetika eta traumatologi arloetan lan garrantzitsu eta espezializatua egiten zuten zentroko sendagileek. Ez



Kirol anitzen jarraipena egiten duen zentroak.

C. VILLAGRAN

dirudi Nafarroako Gobernuko bi mediku funtzionarioak lan hori betetzeko gai izanen direnik, batez ere kirol medikuntzan inolako esperientziarik ez dutela kontutan hartuz gero.

350 KIROLARI KALTETUAK Mepamsa eskubaloi taldea; CBN saskibaloi taldea; Nafarroako patinaia selekzioa, Espainiako selekzioaren bizka-

rrezurra, hain zuzen ere; Oberena eskubaloi taldea; Maristas saskibaloi taldea; Anaitasuna gimnasia taldea; Goia Ferrer korrikalaria; Rafa Araujo, Oskar Intsausti eta Mendiluze pilotariak; Amaia Osaba piraguista; Alberto Etxarte arraunlaria; Itxaso Joven igerilaria; Joaquin Ilundain karateka; Zabala anai moto gidariak; Andres Lukin badminton jokalaria; Pablo del Llano halte-

rofilia txapelduna; Jose Manuel Uriz mahai tenis jokalaria; eta nafar federazioek aukeratutako beste goi mailako kirolari anitzen segimendua egiten duen Kirol Medikuntza eta Ikerketa Zentroak orain arte. Zentroak guztira goi mailako 200 nafar kirolarierekin lan egiten duen, eta mediku pribatuek 2.300 nafar kirolari federatuei eginiko tratamenduak kontrolatzen zituen.

Zentroak, guztira, Nafarroako goi mailako 200 kirolarierekin egiten duen lan, eta mediku pribatuek 2.300 kirolari federatuei eginiko tratamenduak kontrolatzen zituzten.

Horretaz gain, aurten ADO hitzarmen bat medio, 150 espainiar kirolari olinpikoen egoera fisikoa kontrolpean eduki du. Beraz, aurten orotara 350 goi mailako kirolariren segimendua zuzena egiten duen zentroak. Batez beste, kirolari bakoitza urtean hogeita hamar aldiz pasatzen zen Larra-bideko zentrotik, eta bisita bakoitzak berrogei minutuko iraupena izaten zuen. Bisita horietaz gain, zentroak aurten 190 ateraldi egin ditu kirolarien segimendua kantxan bertan egin ahal izateko. Kantxako segimendua honek balio handia du gero zentruan bertan azterketak sakontzeko, kirolariek bertan ematen bait dute benetako maila.

Perez: «Federazioen eginbeharra zentroaren jarraipena eskatzea da»

J.K.L./IRUNEA

Kirol Medikuntza eta Ikerketa Zentroaren dirulaguntzen murrizketak Nafarroako kirol federazioen kezka eta haserrea sortu du. Hori dela eta hamabost federazioek bilera egitea eskatu zioten Jose Luis Diez Kirol Institutuko zuzendari nagusiari. Honek ez zuen guztiakin batera bilera egin nahi izan, eta banaka deitu zituen federazioetako presidentek. Presidentek, ordea, ez zuten etsi, eta astearte arratsaldean denak batera bildu ziren Diezekin. Bilerak giroa baretu badu ere, Kirol Medikuntza Zentroaren geroa zein izanen den ez du argitu.

Patinaiaiko federazioa murriz-

ketekin kezkatuenetarikoa da. Mikel Perez federazioko presidentek garrantzi handia ematen dio medikuntzari kirol kontuetan. «Egun kirol medikuntza arlo garrantzitsua da kirolaren barnean. Gure kirolariek medikuen kontrola behar dute, eta horretaz gain segimendua zuzen eta iraunkor bat. Elikadura eta ikerketa kontuetan eman diren aurrerapausoak ezin dira ahaztu, eta berriz ere atzera jo». Hori dela eta, Perezek zentroa mantentzea eskatu zion Diezi. «Guk ezin dugu ezer esan arrazoi ekonomiko berruz, baina zentroaren beharra dugula argi dago. Gure eginbeharra horren jarraipena eskatzea da». Zentroa duela bost urte jarri zen martxan eta, Pere-



Patinaia bereziki somatuko du eragina.

zek dioenez, bost urte horietan lan izugarri ona egin du. «Nafarroako kirolak nabarmen aurreratu du urte hauetan, eta zen-

troaren lanak eragin zuzena izan du aurrerapen horretan. Nola edo hala, horrek guztiak aurrera segi behar du».

Malli Txapar

.....Orbaitzetako alkatea

«Batzutan uharte bat garela uste dut»

A. BARANDIARAN / ORBAITZETA

EGUNKARIA.— Nola sortu zen Udalean gazte kandidatura sartzeko asmoa?

MALLI TXAPAR.— Duela zortzi urte atera zen ideia, hemengo talde batek herrian gelditu eta bertan soluziobideak bilatzeko erabakia hartu zuenean. Horretarako Udalean sartu beharra zegoen, eta urte hauetan taldea aldatu bada ere —batzuk Iruñera joan dira edo Udala utzi dute—, aurrera egin du bi legegintzaldietan.

EGUNKARIA.— Eta zeintzuk ziren zuek ikusten zenituzten behar edo arazo larriak?

TXAPAR.— Batez ere, herria bizitu eta udaletxean gestio garbi eta partehartzailea sortu beharra. Horretarako herria garatu behar zen, arlo guztietan: kulturala, nekazaritza, basogintza... Lehen zegoen Udala eskuinekoa eta kontserbadore samarra zen, eta bertan zeudenek, betikoek, ez zituzten aparteko gogo edo helburuak. Orain, gogo handiagoa dago hainbat gauza eta gai aurrera ateratzeko, erabakirik garrantzizkoenak batzarrean hartzen direla.

Urte hauetan azpiegituran hobekuntzak egin dira, eta herria ere turismoaren eragina somatzen hasi da. «Hori da hobekien doan negozioa», dio Mallik, baina, aetz gehienak bezala, orbaiztarrek ere oso zuhur dira herriaren ezaugarriei eusterakoan. «Ez dugu gure izaera galdu nahi, eta turismoak ez du oreka hautsi behar. Horregatik, hemengoa behar du turismoan arituko dena, eta lanpostuak hemen sortu behar dira».

Hala ere, urte hauetan Udalean hartutako erabakirik garrantzitsuenetakoa Espainiako Armadarekin lan egiteko ezetzarena

izan da. Txaparrek garrantzia kentzen dio, «hori ez da gure arazorik nagusiena», baina hori dela eta epaiketa izango du apirila aldera.

EGUNKARIA.— Nola hartu zen erabakia?

TXAPAR.— Euskal Herriko herri askotan intsumisioaren aldeko mozio franko onartu dira, eta Kontzientzi Eragozpenaren Legea ez da onartu beste hainbasetan. Duela zortzi urte Udal honen zona ez militarra izendatu zuen herriko dermioa, eta duela lau urte, militarrei bertan akanpatzeko baimena ukatu zitzaizen. Orain, eta jarreran horren ondorio gisa soldadutzarako tramite guztiak egiteari uko egin dio, eta horren ondotik etorri da ni, alkate naizen aldetik, epaitzeko deia.


Epaiketa apirilean izango du Mallik, eta fiskalak eskatutakoa onartzen bada, sei urtez kargu publikorik ezingo du bete. 100.000 pezetako isuna, bitartean, zinegotzi guztien artean ordaindu dute.

Baina Orbaizeta berezia egiten duena bertan dagoen bizitza da. Herriko gazte asko Udalean sartzeaz gain, herrira itzuli dira gero eta despopulazio handiagoa duen inguru batean.

TXAPAR.— Hemen gabiltzanok Iruñean ikasi edo lan egin izan dugu, eta, hiriaz asperturik, berriro itzuli gara herrira. Orduan, bakoitza saiatu da gauzak egiten, eta baten batek ostatu hartu du, beste batzuek etxegintza enpresa sortu dute, beste multzo bat ardiekin ari da, ezin ahantzi baita Orbaizeta gaztari biziki emana den herria dugula. Bestalde, badira abereekin geroan lan egiteko asmo tinkoak, inbertsio handirik egiten duten gazteak. Horrek esan nahi du badagoela jendea hemen bizitzeko asmoarekin eta horrek sortu ditu giro eta helburu

Orbaizeta aipatzerakoan, ola eta Irabiako uharka etorriko zaio burura askori; beste askori, ordea, bertan somatutako giro berezia. Aezkoa baitan, ederra bezain ezezaguna den ibar honetan, orbaiztarrek herria bultzatzeko kon-

promezua hartu dute, eta, egun, beste herrietan somatzen den isiltasuna apurtzen da Urkuluren magalean dagoen herrira heldu bezain laister. Gazteek agintzen dute Udalean, eta batzarrean hartzen dira erabaki nagusiak. Uharte bat itsaso zabal batean.



Orbaitzetak duen izakerari eusteko beharraz sinetsirik dago Txapar.

A.B.

bereziak.

EGUNKARIA.— Hala ere, inguru honetan soilik Orbaizetan somatu da horrelako mugimendua.

TXAPAR.— Bai, ez da ohizkoa, baina horrek, jakina, ez du esan nahi etsenplu bat denik. Hala ere, Aezkoa osoan kasu bakarra da, zona osoa zeharo jota baitago. Jendea, gelditu beharrean Iruñera joaten da, hemen bizitzea benetan zaila da eta.

EGUNKARIA.— Orbaizeta herri zoriontsua da, beraz?

TXAPAR.— Zoriontsua? (barrezka) Zoriontasuna norberaren baitan dago. Pirinio osoan izugarriko desanimoa dago, eta Aezkoan Orbaizeta da bizitza gehien duen herria, jendeak gelditzeko gogo

Soldadutzaren inguruko tramite guztiak egiteari uko egin zion Udalak eta, hori dela eta, Mallik epaiketa izango du apirila aldera. 100.000 pezetako isuna zinegotzi guztien artean ordaindu dute.

baitauka. Hala ere, ez dakit nola iraun dezakeen uharte batek itsaso zabal batean...

EGUNKARIA.— Uharte bat zaretela uste duzu?

TXAPAR.— Nik, batzutan bai.

EGUNKARIA.— Eta etorkizuna nola ikusten duzu?

TXAPAR.— Ez dut etorkizunean sinisten, eta nekez igar daiteke hemen zer gertatuko den. Zeharo jota dago dena, nekazaritza, abeltzaintza... Finkatuta zegoen jendea ere hasi da alde egiten. Gero eta jende gutxiago dago, eta horrek zalantzan jartzen dizkizu gauza asko. Zail ikusten dut egoera, eta herri hauek aurrera ateratzea are zailago. Haurrak ere gero eta gutiago dira...

NOSKI JATOR

-MENDEKU LITERARIOA-



ZVLDI EROA